

Kontrabandisten lasterketa:

Ganden igandean iragan da. 30 lasterkerik parte hartu dute, goizeko 9ak eterditan abiatuak, 8 kiloko karga bizkarrean, izigarri bero zelarrik. Javier Miguelpericenak hamabigarren egin du, bainan alditxartu da eta helikopteroa etorri da bainan hor berean artatu dute. Aurten ere, zortzigarren aldikoz, Etxegarai Fernando Berakoak irabazi du (41'53"), bigarren Apezetxea Asier Etxelarrekoa (44'02") eta hirugarren Sarako Nesprías David (44'41"), 21. lehen emaztea, Oyarzabal Lurdes Luzaidekoa (55'19") eta 28. Saratar Grillard Claire (1.05'05"). Denek izan dituzte opari batzu eta lehenbikoek trofeo ederrak. Jende asko bazen etorria lasterkari horien sustengatzera. Amorena Jean-Philippe Sara Korrika taldeko lehendakariak eskerrak eman ditu deneri.

Pilotaren eguna zen abuztuaren 22an, larunbatarekin. Pilota partidak egin ahal izan dituzte euria

hasi aitzin, bainan afal denboran kalerna jasan dute. Halere izan dute, bazkari eta afarirako, 240 bat jende denetara. Guy Mounho lehendakariak bere taldearekin eskerrak eman ditu deneri.

Abisu: Larun bastimenduaren lanak hasiko dira laster, kontseiluak eman du bere akordioa. Lan horiek 2.867.917€ gostako dira eta bukatuko dira 2016ko ondarreko. Buruilaren 4an, ortziralez (20:30) kontseiluaren bilkura Herriko Etxean, Buruilaren 3tik 7a arte Eskuen lana elkarteak egiten du bere erakusketa Lur Berri gelan goizeko 10etatik arratsaldeko 7ak arte, sarrera uririk.

Pilota: Errebotean esku huska, Union Basque, Umetxoak: Iriarte Eñaut - Iribarren Oihanek finala irabazi 30-27 Abarratiaren kontra. Xisteraz Gaztetxoak: Pouyet Mathieu, Iribarren Mattin eta Mounho Eneko irabazle 40-32 Atharratzen kontra.

Ganex



Eñaut eta Oihan xapeldunak (Sarako Izarra, pilota)